

Mantible

A r a b a k o E r r i o x a k o I K A E u s k a l t e g i a

El euskaltegi IKA de Rioja Alavesa y Viana además de dar clases de euskera a los/as adultos/as, realiza actividades destinadas a favorecer el conocimiento de la cultura euskaldun y el uso del euskera. Esta publicación que tienes entre manos quiere hacer de puente para todos/as aquellos/as que todavía no se han acercado al euskera o apenas lo conocen. Para ello contaremos con la ayuda de aquellos/as que han aprendido el idioma o lo están haciendo ahora. Esperamos que disfrutéis del contenido y si os animáis a aprenderlo no dudéis en acudir al euskaltegi **IKA**.

Eta barrualdean...



■ **Oiongo ur putzuak** ongizatea eta bakea sortarazten dizkigu. **4 or.**



■ **Gabriel Aresti** comenzó a aprender euskera por su cuenta cuando tenía doce años en el seno de una familia nada aficionada a esta lengua. **p. 8**



■ **Ma Jesús:** "El euskera tiene algo diferente, merece la pena de verdad". **p. 2**

udaberria kultur ekitaldiz betea etorri zaigu

Halaxe izan da, bai. Aurten ere hainbat elkarte lanean jarri dira gure eskualdean euskaraz bizitzeko zenbait kultur ekitaldi antolatuz. Ikasturtearen hasierahasieratik halakoak izan ditugun arren, apiriletik ekaina bitartean hainbat ekitaldi izan dira gure herrietan modu bateratuan antolatuak *Topagune* elkarteak (Euskara Elkartearen Federazioa) lagundurik. Txan Magoa, Angela Castro, Ander Lipus edota Julian Iantzi izan dira, besteak beste, gure eskualdera gerturatu direnak. **5. 6. orr.**

Oiongo IKA euskaltegia
Diputazio kalea, 32
01320 Oion
945 601 087

Biasteriko IKA Euskaltegia
Berberana zeharkalea, 5
01300 Biasteri
945 621 055

<http://www.ikanet.net>
errioxa@ikanet.net



solasean.....

M^a Jesús Mansilla Delgado

Como es costumbre en este apartado, conversamos con amigos/as sobre el euskera. En esta ocasión hemos hablado con M^a Jesús, una alumna que trabaja en el ayuntamiento de Oyón y que está estudiando en Logroño con IKA euskaltegia, en un aula que amablemente cede La Escuela Oficial de Idiomas *El Fuero de Logroño*.



matrikulatzeko erabiltzen duten metodologiagatik; baita klaseak dibertigarriak eta entrenigarriak direlako ere.

Nolakoak dira klaseak? Zer moduz moldatzen zara?

Ni egunero, astelehenetik ostegunera joaten naiz klasera bi orduz. Klaseak ez dira batera astunak, oso entrenigarriak, atseginak eta dibertigarriak dira. Konturatu gabe ikasten duzu eta, aurrerapausoak berehala antzematen dituzu telebista ikustean, irratia entzutean, irakurtzean... eta horrek asko animatzen zaitu. Klasean, nik uste dut oso ondo moldatzen naizela, oso ikaskide jatorrak ditut, adin desberdinak baditugu ere, oso giro ona dugu eta noizean behin Laurel kalera joan ohi gara pintxo batzuk hartzera.

Egia da euskara oso zaila dela?

Nik uste dut hizkuntzak zailak direla, ez bakarrik euskara. Euskara desberdina da. Agian hasieran oso zaila iruditzen zaizu, baina gero poliki-poliki konturatzen zara ez dela hain zaila. Dena den, euskara ikasteko gogorik baduzu, seguruenez, lortuko duzu.

Con el tiempo me gustaría conseguir el título EGA. Todavía estoy en 6º y me queda mucho camino por andar. Así y todo estoy segura que lo conseguiré.

Zein izan da zure ikas-prozesua?

Txikitan eskolan eta institutuan ikasi nuen euskara, baina ez asko, egunean ordubete bakarrik. Unibertsitatera iritsi nintzenean utzi behar izan nuen beste hizkuntza bat ikasten hasi nintzelako. Kasu honetan ingelesa. Eta orain dela bi urte berriro hasi nintzen euskara ikasten.

Conocer a alguien que ha empezado de cero y ahora tiene el título EGA me animó mucho. Además, mis amigos/as me aconsejaron a apuntarme en el euskaltegi por la metodología que utilizan y porque las clases son amenas y divertidas.

Zergatik eman zenuen izena euskaltegian?

Oiongo euskaltegian zerotik ikasten hasi eta orain EGA titulua duen bat ezagutzeak izugarri animatu ninduen. Horretaz gain, lagunek gomendatu zidaten Euskaltegian

Zein asmo duzu aurreratzean?

Denborarekin EGA ateratzeko asmoa dut. Oraindik 6. urratsean nago eta bide luzea geratzen zait hori lortzeko. Hala ere, ziur nago lortuko dudala.

Zer esango zenioke euskara ezagutzen ez duenari?

Ezagutzera animatuko nuke. Polita da edozein hizkuntza ikastea. Uste dut esperientzia aberasgarria dela. Euskara desberdina da, benetan merezi du

A alguien que aún no ha tenido contacto con el euskera le diría que se anime a conocerlo. De hecho aprender cualquier lengua es muy bonito; creo que es una experiencia enriquecedora. El euskera tiene algo diferente, merece la pena de verdad.



zuek ere euskaraz.....

■ Aquí encontrarás conversaciones sencillas que se nos plantean todos los días, bien con los/as amigos/as, la familia, comprando en la tienda... Esta vez veremos una pequeña conversación sobre los planes e intenciones que tenemos para vacaciones aprovechando que estamos en plena época estival. Nos hará falta una herramienta clave: **el futuro**. Esto ya lo vimos en el **nº 7 de Mantible**, cuando agregábamos al verbo principal las terminaciones **-GO** para verbos terminados en **"N"** (emango, esango...) y **-KO** para el resto (ikusiko, erosiko, bazkalduko...). A ello también añadiremos el auxiliar **IZAN** o **UKAN** para señalar el sujeto. Aparte de esto también veremos otras tres estructuras para expresar intenciones o planes.

OPORRAK (asmoak eta planak)



-Kaixo, Pedro! Zer moduz?
 -Aupa, Eva! Hementxe, oporrak prestatzen (*¡Aupa, Eva! Aquí, preparando las vacaciones.*)
 -Eta nora joango zara? (*¿Y a dónde vas/vas a ir/irás?*)
 -Bada, begira, Valentzian egun batzuk pasatzeko **aukera** daukat, baina ez dut joateko **gogorik**. (*Pues mira, tengo **oportunidad de** pasar unos días en Valencia, pero no tengo **ganas de** ir.*)
 -Nolatan? (*¿Cómo así?*)

-Nik Italiara joateko **asmoa** nuen, baina Elenak bere etxera gonbidatu nau. (*Yo tenía **intención de** ir a Italia, pero Elena me ha invitado a su casa.*)

-Tira, ez da plan txarra. (*Bueno, no es mal plan.*)

-Eta zuk, zer egingo duzu? (*Y tú, ¿qué vas a hacer/harás?*)

-Herrian geratuko naiz. Hori bai, tarteka hondartzara hurbilduko naiz, izugarri maite dut-eta eguzkitan egotea. (*Me quedaré en casa. Eso sí, de vez em cuando me acercaré a la playa porque me gusta mucho estar al sol.*)

-Etorri nirekin Valentziara! Bertan egun osoan eguzkitan egoteko **aukera** edukiko duzu (*¡Vente conmigo a Valencia! Allí tendrás ocasión de estar todo el día al sol.*)

-Valentziara? Ezta pentsatu ere! (*¿A Valencia? ¡Ni pensarlo!*)

-Gainera, Elenak zurekin egoteko **gogoa** daukala esan dit. (*Además Elena me ha dicho que tiene ganas de estar contigo.*)

-Goraintziak eman, ni hementxe geldituko naiz... (*Dale recuerdos, yo me quedo aquí...*)

Asmoak eta planak adierazteko

Kontzertura joa**TEKO AUKERA** daukat / Tengo oportunidad de ir al concierto.

Iruñean bizi**TZEKO ASMOA** dut / Tengo intención de vivir en Pamplona.

Dantza**TZEKO GOGOA** daukat / Tengo ganas de bailar.

HIZTEGIA (relacionado con las vacaciones o el descanso)


sombrilla itzalkin • solana egutera • gafas de sol eguzkitako betaurreko • al sol eguzkitan • estío udaldi • veraneante udatiar • bañador bainujantzi • gorro de baño • bainu-txano • fiambarrera sakotontzi • dominguero igandezale • ponerse moreno belztu • sombrero ospel • repelente uxagarri • ocio aisia • hostel ostatu • casa rural landa-etxe • excursión txango • viaje bidaia • medusa marmoka • gaviota antxeta • bochorno sapa •



gure kuttunak.....

■ Esta página la dedicamos a recoger los lugares o rincones más queridos por nuestros/as colaboradores/as. Ellos/as mismos/as nos explicarán cómo llegar y por qué les resulta tan especial. En esta ocasión...

El pozo de agua de Oyón



El pueblo de Oyón tiene lugares preciosos pero, en nuestra opinión, especialmente uno: el pozo de agua. Nuestro lugar favorito y predilecto. Para ir al pozo, partiendo de Oyón, tomaremos la carretera a Laguardia. Al llegar a la altura de la residencia de monjas, cogemos el camino que se abre a la izquierda de la carretera con ligera pendiente hacia arriba. Desde el inicio del camino tendremos a los olivos por compañeros. Más adelante, tanto a un lado como al otro del camino, encontraremos viñas. Por eso, si el camino lo hacemos en otoño, el colorido del paisaje será impresionante. En esa época del año es frecuente que se

funda con los colores del atardecer, creándose una sensación indescriptible. También podemos ver plantaciones de cebada y trigo que se mezclan con viejas y jóvenes cepas. Tras 15 minutos de paseo, el camino nos lleva a la cima de un pequeño montículo. Ahí se encuentra el pozo de Oyón. En la mayoría de los pueblos de Rioja Alavesa encontramos pozos, pero el de Oyón tiene algo especial, sus impresionantes vistas. Al norte, podemos contemplar Oyón en toda su extensión, destacando la torre de la iglesia —conocida como la Giraldilla—; el parque, las antiguas casonas y las nuevas viviendas. Hacia el levante, la mirada se detiene en dos o tres bodegas rodeadas de viñedos. Al sur, verdes y doradas praderas; y finalmente, a poniente, La Sierra Cantabria. Así pues, cuando subimos allá —a nuestro pozo— recordamos todos los buenos momentos que nos ha dado Rioja Alavesa. Es para nosotros el pozo del bienestar y la paz. Cada vez que recorremos este camino, regresamos a casa llenos de alegría.

¡Animaos a visitarlo! Y a ver qué os dice el pozo.

Oiongo ur putzua

Oionek baditu leku ederrak baina gure ustez, bereziki, bat dago: ur putzua. Bertaratzeko, Oiondik abiatuta, Biasteriko errepidea hartu eta mojen eraikinaren parera iritsitakoan, errepidearen ezkerrean dagoen bidexka hartu behar dugu, gorantz. Hasieran olibondoak izango ditugu lagun. Aurrera egin ahala albo batean zein bestean mahastiak ditugu. Mahatsondo gazteak eta zaharrak ez ezik, gari eta garagar sailak ikus ditzakegu. Aldapan gora 10 bat minutu egin ditugunean gailurrera iritsiko gara eta hantxe dugu ur putzua. Hango ikusmirak egiten du leku hau kuttun eta esanguratsu. Iparraldean Oion osotasunean ikus daiteke: elizako dorrea, Giraldilla izenekoa; parkea; etxeak, lehengoak eta oraingoak...Ekialdean, bizpahiru bodega ditugu mahastiz inguratuta, Logroño ere hor daukagu. Hegoaldean, lur berde eta horiak ikusiko ditugu garaiaren arabera. Eta, azkenik, mendebaldean, Kantauri mendikatea. Udazkenean joaten bagara, paisaiaren koloreak ikaragarriak dira. Urtaro honetan, askotan, ilunabarraren eta mahastien koloreak nahasten direnean, deskriba ezineko sentsazioa sortzen zaigu. Ur putzura joaten garen bakoitzean, Arabako Errioxa eman dizkigun momentu on guztiak gogoratzen ditugu. Oiongo ur putzuak ongizatea eta bakea sortarazten dizkigu. Horregatik, ibilbide hau egiten dugunean, poz-pezik itzuli ohi gara etxera. Anima zaitzte egitera! Ea zuei zer esaten dizuen putzuak!



euskarak lagun.....

■ Durante este curso el **Euskaltegi, Ttiki-ttaka, Euskaltzales de Rioja Alavesa/ Servicio de Euskera y otras asociaciones** han organizado una serie de actos culturales principalmente dirigidos al público euskaldun pero que también tienen en cuenta a todos los habitantes de Rioja Alavesa. Por eso intentan que su contenido sea lo más popular posible. En las siguientes páginas tenéis unas cuantas fotografías de algunos de esos momentos.




Día Internacional del Euskera



Andoni-Tolosaren hitzaldian

Agate Deuna, Oioner




Fernando Jalón eta Juan Mari Beltran Oiongo euskaltegian, xirilarrua emanaldian



Con la berto-eskola de Rioja Alavesa en el euskaltegi de Oyón



Santi Antero, "Txan Magoa", Mendebian



Sopa de ortigas y ensalada de hierbas y flores. Curso de plantas comestibles en Oyón



La bióloga Angela Castro



Maiatzaren 4an, EKA egunean



Andoni Tolosa, "Morau"

euskarak lagun.....



Eduardo Aznar Mendabian



Comida popular Mendavia




Josemari Carrere Vianan emanaldiaren aurretik



Bertso eskolakoak



Euskal Kultur Asteburua Lapueblan



Ander Lipus (Iñigo Ibarra)




Zirko loretsua Lantziego



Ekainaren 2an Aralarren



"Mendukilo" Leizetik bueltan



2011 ENE




2011 ENE

2011 2011A

euskaltzaleak.....

Gabriel Aresti Segurola (1933-1975)



Bilbon jaio eta bizi izan zen Gabriel Aresti Segurola. Erdaraz hazi eta hezi zen, baina ahalegin handia eginez eta Francoren garaian euskara ikasteko zeuden zailtasunak gorabehera, gogotsu, bere burua euskalduntzea lortu zuen.

Gerora idazle emankorra bilakatu zen Aresti, euskaldunberria izanik ere, poesia eta antzerki lan bikainak idatziz. *Harri eta herri* (1964), *Euskal harria* (1968), eta *Harrizko herri hau* (1971). 1968an Espainiako Gobernuak Jose Maria Iparraguirre Literatura Sari Nazionala sortu zuen. Arestik irabazi zuen *Harri eta herri* lanarekin. Zalantza asko izan ostean aurkezteko erabakia hartu zuen, izan ere, jende askoren ustez erregimenak euskararen gain hartutako jarrera harri azpian ezkutatzeko saiakera izan zen lehiaketa.

Literatura mundua aldatzeko gai zela ustez idatzi zuen Gabriel Arestik eta bere lanak garrantzi handia hartu zuen, poesiaren eta antzerkiaren bidez bere ideiak gizarteratu zituelarik

frankismoaren aurka eta frankismoak eraikitako gizarte moldeen aurka.

Euskaltzaindian ere, euskara batuaren inguruko eztabaidetan parte hartu zuen, Arantzazuko bilkuran, sektore tradizionalista itxien aurrean batuaren aldeko aldarrikapen sutsua eginez. Horregatik, eta baita gizarte gaiekiko bere ikuspegi aurrerakoiatatik eta bere euskaldunberri izaera harro aldarrikatzeagatik ere, oso gaizki hartu zuten sektore horiek.

Gizartean eztabaida zabaldu zuen eta urte haietan euskal gizartean eta kulturaren gertatzen ziren kontraesanen eredu bihurtu zuen bere bizitza. Euskaldunberria izateaz gain, ez zen apaiza (ohikoena orduko idazle eta hizkuntzalarien artean) baina gainera ofizioz ez zen letra gizona izan, kontularia baizik.


Gabriel Aresti Segurola nació, creció y vivió en Bilbao. No siendo vasco parlante, creció y se educó en castellano, pero con gran motivación y fuerza de voluntad, superando las grandes dificultades que existían en la dictadura de Franco, logró aprender euskara en Bilbao.

Con el tiempo, Aresti, aún siendo euskaldunberri, llegó a ser un prolífico escritor en euskara escribiendo excelentes trabajos de poesía y teatro. Los libros *Harri eta herri* (1964), *Euskal harria* (1968), y *Harrizko herri hau* (1971). En 1968 el Gobierno español creó el Premio Nacional de Literatura José María Iparraguirre. Lo ganó Aresti, por su *Harri eta herri*. Se había presentado tras muchas dudas, puesto que mucha gente pensaba que se trataba de un intento del régimen de lavarse la cara en los asuntos del euskera.

Gabriel Aresti creía que la literatura era una herramienta con capacidad de transformación de la sociedad, y lo cierto es que su trabajo fué el vehiculo mediante el que trasladó a la sociedad sus ideas progresistas y en favor de una sociedad libre de las rígidas convenciones sociales del franquismo.

Aresti tomó parte también en las importantes discusiones en torno al euskara batua. En el famoso congreso de Arantzazu (1968) hizo una encendida defensa del euskara unificado frente a los sectores más tradicionalistas y cerrados. Por ello, además de por sus atrevidos planteamientos sociales y por su orgullosa defensa de su condición de euskaldunberri, Aresti fué muy mal visto por aquellos sectores conservadores.

Gabriel Aresti consiguió plantear la discusión en la sociedad y convirtió su propia vida en ejemplo polémico de las contradicciones que en aquel tiempo afloraban en la sociedad y cultura vascas. Además de ser euskaldunberri, Aresti no era sacerdote como la mayoría de escritores y lingüistas de la época. Para remate, ni siquiera vivió de las letras, ya que era contador en una empresa y dedicaba su tiempo libre a su gran pasión literaria.



DATOS DEL CURSO 2011-2012

alumnos/as	mujeres	varones	presencial	autoaprendizaje
160	110	50	133	27

PUEBLOS HERRIAK	ALUMNOS/AS IKASLEAK
Baños de Ebro / Mañueta	3
Barriobusto / Gorrebusto	2
Bernedo	1
Elciego / Eltziego	5
Elvillar / Bilar	3
Kripan	3
Labastida / Bastida	4
Laguardia / Biasteri	18
Lanciego / Lantziego	5
Lapuebla de Labarca	12
Navarrete	1
Navaridas	1
Oyón / Oion	35
Paganos	1
Samaniego	4
Villabuena de Álava / Eskuernaga	2
Yécora / Ekora	2
NAVARRA / NAFARROA	
Andosilla	1
Meano	1
Mendavia / Mendabia	7
Viana	10
LA RIOJA / ERRIOXA	
Albelda de Iregua	1
Anguciana	1
Haro	6
Lardero	1
Logroño	23
Ollauri	1
Ribafrecha	1
Santo Domingo	1
Tricio	1
Villamediana	3

Las clases se han impartido en Labastida, Laguardia, Lapuebla, Oyón, Logroño y Mendavia



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística

TESTUAK: Arabako Errioxako IKA ■ G. Aresti euskaltegia ■ Angel Zelaieta
 ARGAZKIAK: Errioxako IKA ■ El poder de la palabra (epdlp) ■ Absolut Bilbao ■ Auñamendi entziklopedia
 ILUSTRAZIOAK: Esther Diana García, Mar Sáez eta Antonio Ortega Moreno (INTEF)